

Erf.: Auzo bideen argitze espedientean epea luzatzea  
Tx. zk.: 15/02

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

Inventarioan agertzen diran Bermeoko udalerriko auzo bideak gaurkotu eta ikertzeko zabaldutako espedientean alegazinoak aurkezteko epea luzatzea.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Ofizioz.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Lehenengoa: 2014ko irailaren 4an, Udal Osoko Bilkureak, Inventarioan agertzen diran Bermeoko udalerriko auzo bideen zerrendea gaurkotu eta ikertzeko espedientea zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: Entzunaldiaren iragarkia 2014ko azaroaren 4ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan eta, ondorioz, alegazinoak aurkezteko epea abenduaren 22an amaitu zan.

#### **b) Oinarriak**

Bakarra: Procedura Administrativo Orokorra arautzen dauan 30/1992 Legeko 49. artikuluak honakoa dino epeen luzapenari buruz:

- “1. La Administración, salvo precepto en contrario, podrá conceder de oficio o a petición de los interesados, una ampliación de los plazos establecidos, que no exceda de la mitad de los mismos, si las circunstancias lo aconsejan y con ello no se perjudican derechos de tercero. El acuerdo de ampliación deberá ser notificado a los interesados.
2. La ampliación de los plazos por el tiempo máximo permitido se aplicará en todo caso a los procedimientos tramitados por las misiones diplomáticas y oficinas consulares, así como a aquellos que, tramitándose en el interior, exijan cumplimentar algún trámite en el extranjero o en los que intervengan interesados residentes fuera de España.
3. Tanto la petición de los interesados como la decisión sobre la ampliación deberán producirse, en todo caso, antes del vencimiento del plazo de que se trate. En ningún caso podrá ser objeto de ampliación un plazo ya vencido. Los acuerdos sobre ampliación de plazos o sobre su denegación no serán susceptibles de recursos”.

Hori dala eta, Osoko Bilkurearen eskumena danez, 1010. zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez onartutako epe luzapena berrestea proposatzen da, izapidetzen ari dan espedientea, ahalik eta egokien osotu eta amaitu daiten.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2015eko urtarrilaren 20an.

Karmele Muñoa Arrigain  
Jarduneko Idazkaria